



Gaboonak  
ate joka!

# TXIKITTO

2013ko abendua

I 40



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo  
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako  
ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri  
eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa  
eta Koldo Mitxelena.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

- Zer esan zuen ET-k limoia jaterakoan?
- Mikaaaaatzaaaaa!!!!

Gizon batek ahuntza darama sokatik lotuta, eta lagun batek zera galdetu dio:

- Nora zoaz txerri horrekin?
- Ez da txerria, ahuntza da.
- Barkatu, baina ahuntzarekin ari nintzen hizketan.

Elefante batek hau galdetu dio gameluari:

- Zergatik dituzu titiak hor goian?
- Begira nork galdetzen duen, zakila aurpegian duen batek!!!

Albondiga batek esan zion beste bati:

- Zergatik irristatzen naiz hainbeste?
- Saltsa gehiegi ipini duzulako!!!

Eskolan, andereñok Jaimitori galdetu zion:

- Zenbat da 2+1?
- Ez dakit, datu gehiagorik ez badidazu ematen!!!

Balkoian bi maindire zintzilikatuta daude eta haize handia dabil. Batek besteari galdetu dio:

- Zer gertatzen zaizu hainbeste mugitzeko?
- Ezer ez, pintza joan zaidala!!!

Ingeles bat eta euskaldun bat elkartu ziren. Bat batean ingelesa uretara erori eta hasi zen:

- Help!!! Help!!! Help!!!

Eta euskaldunak erantzun zion:

- Gel ez daukat baina txanpu bai!





Aupa lagunok! Hemen gatoz berriz ere hilabete honetan egin ditugun hainbat ekintza kontatzera. Azaroaren 11n Gaztainerre eguna ospatu genuen **Arrateko Andra Mari** ikastetxean. Ikasle guztiek, txiki zein handiak, abesti emanaldi polita eskaini ziguten; ondoren, gurasoek prestatutako gaztainak jan genituen eskolako patioan.

San Andresak ere ospatu ditugu gure eskolan, azoka ederra antolatu genuen eta horretaz gain, bertsoak, abestiak eta herri kirolak izan genituen eta oso ondo pasatu genuen denok.

Abenduaren 3an euskararen egunean, udalak antolatutako XIX. Mendean jaiotako eibartar ekintzaileen inguruko lehiaketan parte hartu dute gure ikasle nagusienek. Horretaz gain, Udaletxeko patioan "Ipini aurpegia euskarari" ekintzan ere parte hartu dute gure eskolako LH-ko ikasleek.

Eskolan ere izan dugu ekintza xume bat euskararen eguna ospatzeko, argazkian ikus daitekeen moduan Eibar futbol taldeko jokalaririk bat izan dugu gurekin, Jon Errasti. HH 5urtekoak eta LH-ko ikasleekin solasalditxo bat izan zuen kirola eta euskara bat eginez. Beno gabonetako opor bueltan kontatuko dizuegu nola atera den guztia. Besterik gabe, Zorionak eta Urte Berri On!



**San Andres** eskolako 6. mailakoen proiektua lantzeko ikasle batzuen aitaitxa eta amama etorri ziren: "20. mendean izandako aldaketak". Hau da hau daukagun altxorra!!!

Abenduaren 3a nazioarteko euskararen eguna izan izan. **Juan Antonio Mogel** Ikastolarako ekintzaz betetako ospakizun-eguna izaten da.



Eibarren erabili zen "IPINI AURPEGIA EUSKARARI" esaldia aprobetxatuz, hiru ikastetxeetan ikasleen irudiak jarri ditugu eta taldeka esaldi aproposak asmatu ere bai.

Egunean zehar ikasleak udaletxean argazkiak ateratzera hurbildu ziren. Goizez Argatxa eta Sansaburuko 5 urteko haurrak. Arratsaldean, 5. eta 6. mailako ordezkari batzuk joan ziren argazkiak egitera eta esaldiak mikrofonoz irakurtzera. Guzti hau egin arren, badakigu eguneroko lana dela gure hizkuntza goi mailan eustea.



**La Salle** ikastetxean ere Gaztainerre eguna ospatu genuen azaroan; egun horren bueltan, bertsoak, eskulanak, kantuak... landu genituen, eta nola ez, gaztainak jan ere bai! Horrez gainera, Proyde Proegako ospakizuna ere izan genuen, Argentinarako proiektu bantentzat. Eta hilabete ondo amaitzeko San Andres azoka egin genuen eskolan, txorizo, Dantza, abesti eta herri kirol eta guzti!

# DENBORAPASAK



Osatu bikoteak  
eragiketarik egiten.



Egileak: June eta Ane

- Greg
- Jara
- Joxeme
- Nur
- Ki Ki
- Jasone Osoro
- Xabier Mendiguren
- Toti Martinez de Lezea
- Txiliku
- Jeffok

Egileak:  
Eneko Abajo  
eta  
Aner Bergerana

Estutzen al zaizue liburua?  
Lotu egileak pertsonaiekin.

POTOLO

GARBIA

HANDIA

POLITA

ZIKINA

POZIK

ZAZARRA

ARGAZA

HASERRE

XIKIA

BILATU ANTONIMOAK ETA LOTU MARRA

BATEKIN

Egilea: Nora eta  
Maren.

## Din dan don, din dan don, e

**B**ai bai, azkenean ailegatu dira Gabonak! Hainbeste denbora zain egon eta gero gainean ditugu. Eta Gabonekin batera baita oporrak ere! Hemendik aurrera denbora mordo bat izango duzue denetarik egiteko: Olentzeroren opariekin gozatzeko, lagun eta senideekin egoteko, etxeko lanak egiteko... Aspertzeko astirik ez duzue izango.

Martitzena oso egun berezia izango da, ume zein helduentzat. Badakizue nor etorriko den martitzen gauean, ezta? Asmatu duzue, bai! Olentzero etorriko da gu guztion etxeetara, eskatutakoa ekartzera,

edo... ez? Txintxoak izan zareten edo ez, horren arabera ere izaten direlako jasotako opariak. Gutuna idatzi eta bidaliko zenioten, ezta? Ez bada horrela, segi, segi eta bidali bizkor gutun hori, bestela...

\* Abenduak 24 egun berezia izaten da. Goizean goizetik arnasten da giro ederra. Eta arratsaldean... Olentzerok gure herriko kaleak bisitatzen ditu. 18.00etan ekingo dio kalejirari, Untzagatik hasi eta, Julian Etxeberrian buelta eman gero, Untzagan amaitzeko. 19.00etan harrera egingo die Olentzerok han bildutako umei.



# guberri on!

Horrez gainera, Gabonetan izango duzue zer egin eta zer ikusi. Hemen duzue eskaintza:

\* Gabonetako IX. Artisau Azoka. Abenduaren 20tik urtarrilaren 5era arte (11.00-14.00 eta 17.00-21.00), Eibarko Bizikleta Plazan. 12 postu. Barixaku, zapatu eta domeketan DJ-ak. Abenduaren 21ean desfilea bertako lanak erakusteko, 18.00etan. Abenduaren 27an 6 artisau-artista gehituko dira beren lanak erakusteko eta 19.00etatik aurrera DJ-a. Umeentzako tailerrak ere egongo dira.

\* ASTELENA HAUR PARKEA, abenduak

26, 27 eta 28, eta urtarrilak 2, 3 eta 4 (11.00-14.00 eta 17.00-20.30). Puzgarriak, ehunzangoa, piloten igerilekua, puzgarri txikia, margotzeko txokoa. Umeentzako hainbat tailer ere izango dira. Sarrerak Eibar Merkataritza Gune Irekiak banatutako bonoen bitartez edo sarrerak Astelenako takilan (3€). Sarrera ordu eta erdirako izango da.

\* Errege Kabalgata, urtarrilaren 5ean. 16.30etan Dantza-ikuskizuna gimnasia erritmika, Dantza garaikidea eta Eibarko balletarekin. 19.00etan kabalgata Untzagatik Urkizura eta buelta.



Nagusixen eta umien artian  
desbardinttasun haundixak  
izaten dirala pentsatzen dogu.  
Baiña zer gertauko zan galdera  
bardiña egitten badetsagu  
nagusixari eta umiari?  
Horrenbesteko aldia  
egongo ei da?

## Zer eskatuko zetsazun datorren urtiari?

### MALEN GARATE, 8 URTE

Datorren urterako zer eskatzen doten... jo, ba ez dakitx... nota onak ataratzia, bidaia luze bat egittia... Londresera esate baterako!!! Eta Olentzerori mugikor bat. Gurasuentzat poztasuna eskatzen dot.

### LANDER GOMEZ, 8 URTE

Datorren urtian nota onak atarako dittut. Pistinan be mailaz igoko dot, olagarro izatetik zalditxora. Ura asko gustatzen jata eta waterpoluan be jardungo dot laster!!! Aittak acuaparkera juango giñala agindu zestan, ia betetzen daben. Osasuntsu egotia be nahi dot, azken aldixan papilomiak piskat izorratu nau-eta!!

### VIRGINIA RUBIO, 45 URTE

LANA!!!! Aurreko urtian langabezixan geldittu nintzan eta ondiok be holan segitzen dot. Lana, osasuna... egonkortasuna. Egoera txar honetatik urten eta lasaixago bizi ahal izatia, zoriontsu.

### SETE MURILLO, 37 URTE

Datorren urterako? Egoeria aldatzia!!! Krisixa amaitzia!! Gu eta gure ingurukuak ondo egotia, osasuntsu eta lanian. Danok eskatzen dogu berdiña, ez??? Ez dadilla ezer falta iñorentzat, ezta gure oiñordekuentzat be. Duda barik aurrera egittia!!







## UMEAK GOZATU

Estimulatu, motibatu... Gurasook sarri entzuten dugu seme-alabak estimulatu eta motibatu behar ditugula, umeen aisialdia aprobe-txatuz euren interesak asetu behar ditugula. Nola, ordea?

Ez dugu beste munduko planifikazio edota jardunaldi pedagogikoren beharrik gure seme-alabekin lasai "egoteko", gozatzeko, ondo pasatzeko... Urte osoan bizimodu azeleratu xamarra eramaten dugu denok, helduok ez ezik baita umeek ere! Ordu-tegi zorrotza jarraitzen dute umeek: eskola, eskolaz kanpoko jarduerak, etxekolanak... Sarritan hain lanpetuta egoten gara denok, egunerokotasu-neko lanek zurrumbilo baten sartzen gaituztela eta elkarrekin egoteaz, ezer berezirik ez egiteaz, ahaztu egiten garela, edo horretarako astirik topatzen ez dugula.

Horregatik Gabonetako oporraldi hau aukera paregabea izan daiteke, gure seme-alabekin lasai asko bazkaria prestatzeko, mahai-joko baten aritzeko, eskulanak egiteko, ohean berandura arte elkarrekin egoteko... Umeak behar duena, heldua, baldintzarik gabe, hor izango dela jakitea da.

Izan ere, azkeneko azterketa batzuk azaleratu dutenez, umeek gehien eskatzen duten gauzetako bat "pozik" edo "zoriontsu" izateko, gurasoekin denbora gehiago egoteko aukera da. Adituek diotenez gurasoek seme-alabei egin diezaieketen oparirik ederrana euron denbora eskaintzea da.

Zaila da batzuetan denbora hori ateratzea eta horregatik ondoren aholku txiki batzuk eskaintzen dizkizuegu:

- Umeak goiz oheratu. Hurrengo egunean lasaigo ibiliko gara, gosari luzeagoa egin eta egunean zehar zer egingo dugun kontatzeko astia izango dugu.

- Gugan (helduengan) inbertitu. Astean ordu-betetxo bat norberarendako ateratzea (kirola egin, lagunekin irten...), umeekin jardutera-koan lasaigo egoten lagunduko digu.

- Telebista gutxiago ikusi. Pantailak (telebista, bideojokoak, internet...) familiari eskaintzen diogun denboraren etsai nagusiak dira. Ikasketak eta jolasari denbora lapurtzeaz gain, el-karrizketari leku gutxi lagatzen dio.

- Otorduren bat elkarrekin egin. Otorduak aprobe-txatu elkarriketa sustatzeko.

- Seme-alaba bakoitzari, modu esklusiboan, egunero minutu batzuk eskaini.

- Hilean behin familia-planen bat antolatzen saiatu.

Helburua ez da gure seme-alabekin pasatzen dugun denbora ekintzaz betetzea, baizik eta partekatutako bizipenaz betetzea. Batera bi-zitzea baino, elkarbizitzea.

Umeak gozatu!





## **Gabonetako zuhaitzerako bola apaingarriak**

Gabonak gainean ditugula-eta, arbola zuek egindako zerbaitekin apaindu nahi baduzue, hona hemen aukera bikaina!

### **OSAGIAK:**

- Brillantina
- Soka
- Globoak
- Haria
- Itsasgarria



### **PAUSOAK:**

- 1.- Puztu globoa eta lotu.
- 2.- Haria busti itsasgarri txurian eta globoaren inguruan endredatu.
- 3.- Utzi globoa sikatzen egun batez.
- 4.- Apurtu globoa orratz batekin.
- 5.- Soka txiki bat sartu bolaren erdialdean gantxitoa egiteko.
- 6.- Itsasgarri gardena jarri bolaren inguruan.
- 7.- Brillantina jarri ontzi batean eta busti bola bertan.



# etxeko SUKALDARIA

## MARIGORRINGOAK

Oso osagai gutxirekin eta oso oso erraz, marigorringo gozoak egingo dituzue. Ondorengo pausoak jarraitzea besterik ez duzue, eta bat baino gehiago txundituta utziko duzue.

### OSAGIAK

- ✓ Gaileta-gazi poltsa bat
- ✓ Gazta-krema (Philadelphía edo antzekoa)
- ✓ Cherry tomateak
- ✓ Oliba beltzak
- ✓ Tipulina

### Pausoak:

- 1.- Moztu tomateak lau zatitan eta gorde.
- 2.- Igurtzi gazta-krema gailetetan.
- 3.- Jarri tomateak gaileten gainean marigorringoaren gorputza osatuz, argazkian ikusten den moduan.
- 4.- Moztu oliba bi zatitan eta hezurra kendu. Erdi batekin marigorringoaren burua egin.
- 5.- Tipulina zati batekin antenak egin.
- 6.- Bizkarreko orban edo tantoak egiteko, moztu oliba zati txiki-txikiak eta tomatearen gainean jarri.



## ARIES

Artista bat zara! Denetarik dakizu egiten eta, egia esan, ondo egiten duzu! Ez duzu pentsatu telebistara joatea? Zorteko zenbakia zuretako 3.

## TAURUS

Gabonetako oporrak luzeak dira eta gauza asko egiteko arobetxa dezakezu. Ez ahaztu etxeko lanak, gero eskolara buelta xamurragoa egingo zaizu-eta.

## GEMINIS

Gogoan duzu nola pasa zenituen iazko Gabonak? Ohetik eta komuniket irten ezinda! Aurten zaindu zaitez, tripontzi!

## CANCER

Bai, bai, udaberriaren zain zaudela badakit, baina pazientzia apur bat izan beharko duzu, neguan sartu berri gaude-eta!

## LEO

Interneten ibiltzea ondo dago, baina gauza guztiekin bezala neurria hartu horri ere. Badakizu zenbat gauza egin ditzakezun?

## VIRGO

Datozen egunotan hozteko arriskua izango duzu, erropa gutxiegi jartzen duzu, eta gero badakizu zer gertatzen den. Zorteko zenbakia 8.

## LIBRA

Olentzerori hori eskatu badiozu ez duzu zertan lotsatu. Bakoitzak nahi duena eskatu behar du eta bost ajola besteek zer pentsatzen duten!

## SCORPIUS

Datozen egunotan 4 zenbakiak zortea ekarriko dizu, zure kolorea txuria izango da eta animalia txerria. Animalia hori aipatu dugula... saiatu zaitez txukunagoa izaten!

## SAGITARIUS

Arobetxatu itzazu Gabonetako oporrak guraso eta senitartekoekin denbora gehiago pasatzeko. Ikasturtean korrika eta presaka bizi gara, beraz, egun hauetan lasaiago bizi!

## CAPRICORNIUS

Gabonak ez dira soilik Olentzerori opari mordo eskatzeko sasoi, familia giroan goxo-goxo egoteko egunak ere badira. Bestetik, 8 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea berdea izango da.


## ACUARIUS

Atera denbora pixka bat liburu bat irakurtzeko. Mugikorra, Nintendo, tableta... Teknologia berriak erabiltzea ondo dago, baina hainbeste... Karta-jokoa jardutea ere ez da plan txarra!

## PISCIS

Logela jostailuz beteta eta zenbat opari berri eskatu dizkiozu Olentzerori? Horrela jarraituz gero etxetik zuk irten beharko duzu, lekurik ez duzue izango-eta! Zorteko zenbakia 2 eta kolorea laranja.

# INTERNETEN...



## www.gabonak.com

Gabonak gain-gaiean ditugula-eta, hona hemen sasoi honetarako web orri aproposa. Gainera oporretan denbora gehiago izango duzue, primeran pasatzeko moduko gauza asko eskaintzen digu orri honek: Olentzerori buruzko bitxikeriak, Gabonen inguruko esaera zaharrak, olerkiak, denborapasak, gabon-kantak, pantailarako irudiak, postalak, Gabonak munduan...

## www.ahotsak.com

Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkeren biltegia. Herrietako adineko jendea elkarrizketatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea du helburu.

Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

ahotsak.com

es fr en ca

SARTU

SARRERA GRABAZIOAK CORPUSA EUSKALKIAK AKTUALITATEA HONI BURUZ

Hemen zaudete: [Sarrera](#) + Eibar

### Eibar

Gipuzkoako udalerria, Bizkaiko mugan dago (Markina eta Ermuko udalerriekin egiten du muga) eta Debabarrena eskualdeko herririk garrantzitsuenak da. 27.600 biztanle ditu (%52,5 euskaldunak). Bizkaieraz egiten da berba, eta bereziki da Agiñaga auzoa, Markinako hizkeraren eragin nabarmena daukalako. Herri hizkeren azterketan eta bilketan aitzindari izan da Eibar, eta horren lekuko "eibarrera" bilzen duten liburuak, lanak eta proiektuak.

Hizleriak: 79; Zintak: 533; Fasarteak: 565;  
Transkribatutakoak: 96; Audioak: 0; Bideoak: 425

Ikusgai dauden bideo guztietatik, hona hemen bat:

Biztanleak: 27.393  
Euskaldunak: %52,6  
Hizkera: Debardikoa  
Herriko informazio guztia

Eibarco euskara sekun eta luze eztertu izan da. Toribio Etxebarria izan zen aitzindari, 1960ko hamarkadan. Bere ondoren hasi ziren Juan San Martín, Imanol Laspiur, Serafin Basauri eta Aritzon Narbaiza. Azken urteetan belaunaldi gazteagoak hartu du aurrekoen lekukoa (Nerea Areta, Asier Sarosua, Aintzane Aizpuruña eta abar). Azken 40



## **NORAK SUHILTZAILE IZAN NAHI DU**

Norak suhiltzaile izan nahi du. Txikitatik. Bere amak esaten du osaba Tomaxen errua dela. "Ditxo-sozko kamioi hura ekarri izan ez balizu, suhiltzaileak zer diren ere ez zenuen jakingo. Baina gure anaia horrek ideia onik izaten ez duenez..."



## **KEA AIREAN BEZALA**

Lionel eta Kris anai-arrebak harrera-etxe batean bizi dira. Lionel konturatzen da beren egoera ez dela "normala". Beste haurrentzat arruntak diren gauzekin egiten du amets: gurasoekin bizitzearekin, beren etxe propioa izatearekin, amaren laztanekin, maitasuna eskatu gabe hartzeko aukera izatearekin...



## **ORTZI ETA KUKUMA: ATXIA MOTXIA**

Azken euriteakaz joan zan negua, udabarrak lorez jantzi ingurua. Mendi tontor batetik begiratzen bada, Oreinen Haran hori zoragarria da.



## **BURUKO HURA NORK EGIN ZION JAKIN NAHI ZUEN SATORTXOA**

Egun batean, satortxoak burua azaldu zuenean lur meta baten erdian egunaren argitza ikusteko, burukoa gertatu zitzaion. Biribila eta marroia zen, txorizo baten antza zuen baina okerrena hauxe zen: buruan erori zitzaiola!



## **TXIMELETRAK**

Poesia ederraz betetako liburua duzue hauxe. Tximeletrak, Ikusi-makusi, Pupupoema, Lorez eta olerkiz edota Marrak eta kakotxak dira besteak beste, liburuan aurkituko dituzuen olerkien izenburuetako batzuk.



## **MUNSTROEN ITSASOA**

Hona nola hasi zen nire amesgaiztoa. Kale huts batean nengoan, itsasaldeko hiri txikiren batean. Gauerdia zen eta ekaitza zebilen. Haizeak eta euriak astintzen zituzten espaloiko palmondoak...

## OILOA ETA ZOZOA

O

rain urte asko gertatu zen hau. Azeriak oiloa harrapatzea erabaki zuen. Zaku handi bat hartu eta oiloaren arrastoari jarraitu zion. Toki egokia aurkitu zuenean, zuhaitz baten ostean ezkutatu eta oiloa agertzeaz bat, taka, zaku barrura. Zozo batek gertatutako guztia ikusi zuen. Zozoa oiloaren laguna zen.


“ Oilo gixajoa! Nire laguntza behar du. Bai, nik ere badakit ziria sartzen...”, pentsatu zuen zozoak.

Azeriaren aurrean jarri zen, geldirik, hego bat apurtuta balu bezala. Zozoa egoera penagarrian ikusita, azeria pozik. “ Hau ere zakura”, esan zion bere buruari.

Baina zozoa harrapatzeko puntuan zegoenean, honek salto bat egin zuen aurrerantz. Hegalditxo labur bat eta gelditu egin zen. Horrela behin eta berriro. Azeria hurbiltzen zen bakoitzean, zozoak hegalditxoak. Bien bitartean oiloak zakutik ateratzea lortu zuen eta bere lekuan harri bat sartu zuen zakuan. Oiloa aske zegoela ikusi zuenean, zozoak alde egin zuen. Orduan bai, orduan akrobata baten trebeziak egin zuen hegan.

“ Hor gelditzen zara” esan zion azeriari.

“ Txerri hori! Niri adarra jo nahian?... Bai, berdin dit. Oraindik oilo gozoa daukat”.



**Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...**

Oilo gozoa zeukala, bai zera! Azeria ez zen oiloaren azpikeriaz ohartu eta zakua lepoan hartuta etxerantz abiatu zen. Etxean ura jarri zuen irakiten eta, zaku barrukoa oiloa zelakoan, lapikora jaurti zuen... harria. Plausta! Zipristinek salto egiterakoan azeriaren larrua erre egin zuten. Ze erre eta ze arrai! Gaztaina egosiaren antzera geratu zen azeria. Harrezkero azeria ez da oiloen atzetik ibiltzen!



*Olentzero maitea:*

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

*Besterik gabe, musu bat.*



ZORIONAK

**zu margolari!**